

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**54/2016 Foru Agindua, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuarena, otsailaren 29koa, onartzen duena Garaio eta Landako hondartzak Bandera Urdina konpromisoari atxikitzea**

#### I. Aurrekariak

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiak erabilera publikoko eta ingurumen hezkuntzako azpiegiturak, hornidurak eta zerbitzuak jarri zituen Garaio eta Landako probintzia parkeetan, eta zaindu ere egiten ditu. Hantxe daude, egon, Garaio 1 edo Iparra, Garaio 2 edo Hegoa, Landa, Barrundia, Burgelu eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrietan, hurrenez hurren.

Bigarrena. Bandera Urdina sari bat da, eta ingurumen kalitatea ziurtatzeko sistema bat ere bai, "Ingurumen Hezkuntzarako Fundazioa" izeneko gobernuz kanpoko erakunde irabazteko xederik gabeak garatua, zeinaren adarra eta programa kudeatzailea Espainian ADEAC elkarte baita. Bandera Urdina eskuratu eta atxikitzeko, bainurako uren kalitate estandar zorrotzak egiaz-tatu behar izaten dira, eta horiekin batera segurtasuna, ingurumen kudeaketa eta iraunkortasunerako informazioa eta hezkuntza. Eskatzen diren irizpideak, eta haien interpretazioa, erakunde horrek urtero-urtero egiten dituen gidetan jasotzen dira, zeinak jendearen esku jartzen baitira bere web orrian.

Hirugarrena. Eskatzen diren baldintza formalen artean, bada "Bandera Urdina Konpromisoari" atxikitzea deritzon bat, zeinaren barruan jasotzen baitira emandako informazioaren egiazkotasuna, ezarritako irizpideak ezagutzea eta betetzea, eta, orobat, bete ezean, bandera hori eraistea.

#### II. Oinarriak

Bandera Urdinaren irizpideak bat datoz Arabako Foru Aldundiak Garaio eta Landako hondartzetan gauzatu duen kudeaketaren ibilbidearekin, bai eta leku horietarako ezarritako helburuekin, alegia, ingurumen hezkuntza eta natura zaintzea, betiere erabilera publikoarekin bateragarri izateko moduan. Bandera Urdina da nazioarteko ezagutza bat hondartzak ingurumenaren begirunez kudeatzeari ematen zaiona. Horrenbestez, Arabako Foru Aldundia hondartza horietan gauzaten ari den kudeaketaren jardun eta gidalerroak Bandera Urdinaren irizpideei egokitzea onuragarria izango da lurralde historiko honen interesetarako, hala deritzogu. Horretarako baldintza da Bandera Urdina konpromisoa sinatzea.

Hori dela eta, abendauren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua esleitzen dizkidan ahalmenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bandera Urdina konpromisoa sinatzea, zeina eranskin gisa ageri baita hemen.

Bigarrena. Ahalmena ematea Ingurumen eta Hirigintza zuzendariari onar ditzan konpromiso horren ondoriozko betebeharrak betetzeko behar diren ebazpen guztiak.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi

Nagusiko Administrazioarekiko Auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2016ko otsailaren 29a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
JOSEAN GALERA CARRILLO

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*  
AMAIA BARREDO MARTÍN

### Eranskina

Eskabide hau Arabako Foru Aldundiak eta ADEAC-FEE elkarteek sinatutako kontratutzat hartuko da. Bera sinaturik, honako hau ziurtatzen da:

· Udal eta hondartzen galdetegietan emandako informazioa zuzena da, eta Bandera Urdinaren irizpideen arabera hartutako betebeharrak bete egingo direla hondartza hauetan:

Garaio 1 Barrundia

Garaio 2 Burgelu.

Landa Arratzua-Ubarrundia

· Arabako Foru Aldundia da Bandera Urdina saria eman zaien hondartzen arduraduna, eta hitz ematen du eraitsi egingo duela Bandera Urdina aginduzkoak diren irizpideetakoren bat betetzeari uzten bazaio. Betebeharren bat betetzen ez bada, berehala jakinarazi beharko zaio ADEAC-FEE elkarteari, hura baita Bandera Urdina Programaren arduraduna.

· Arabako Foru Aldundiak erantzun egin beharko die ADEAC elkarteak hondartza sarituetan egiten dituen ikuskapenen ondorioz egiten dizkion errekerimenduei.

· Arabako Foru Aldundiak ezagutzen ditu programaren arauak, honako hauek barne: estatu epaimahaiak eta nazioarteko epaimahaiak berentzat gordetzea Bandera Urdina ez emateko eskubidea, edo estatuko ingurumen araudia urratzen duten udalei edo Bandera Urdina Programaren helburuekin edo asmoarekin bat ez datozen jarduerak gauzatzen dituzten udalei Bandera Urdina kentzeko eskubidea, edo hondartza batek irizpideak edo kontratu hau bera larriki ez betetzeagatik hari bi urtez saririk ez emateko eskubidea.

· Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du Bandera Urdina jasotzeko, beranduenez ere uztaileko lehenbiziko astean, eta, halaber, Bandera Urdina eraisteko, irizpideetakoren bat betetzeari uzten zaion unean bertan (bainuen sasoia amaitzean).

Udalerriak:

Barrundia, Elburgo eta Arratzua-Ubarrundia.

Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa sinatzen duen pertsonaren izena eta kargua:

Amaia Barredo Martín. Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

Eguna:

Sinadura eta zigilua